

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

511

35/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 16koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2023ko abenduko lekualdatze-lehiaketako zikloko destinoen eskaintza, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Fakultatibo Espezialista Medikoen kategoria/lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplikatu dadin ente publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 16ko 575/2023 Ebazpenaren bidez (martxoaren 29ko EHAA, 62. zk.), lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra deitu zen Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Fakultatibo Espezialista Mediko kategorian/lanpostu funtzionalean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldean.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1. apartatuan xedatutakoari jarraituz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren 2023ko abenduko zikloko lekualdatze-lehiaketa, A1 Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriarako / lanpostu funtzionalerako, Ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez egiten den deialdiaren zikloan data hauek hartu dira erreferentziazat: 2023ko urriaren 31, eskainiko diren lanpostuak hautatzeko, eta 2024ko otsailaren 21a, eskakizunak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko, eta destinoa aukeratu edo aldatzeko.

Lehiakideek eskabidea aldatu ahalko dute, baita destinoen aukeraketa ere, 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren oinarrietan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 16ko 575/2023 Ebazpenean araututakoari jarraikiz, 2024ko otsailaren 21era arte, 2023ko abenduaren ziklo honi dagokionez.

Destinoen aukeraketa aldatzeko, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da.

2023ko abenduko ziklo honetan, 2024ko otsailaren 21era arte egindako destino-aukeraketa hartuko da kontuan, aldez aurretik adierazitakoaren arabera.

2023ko abenduko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak jasoko dira, baldin eta gutxienez zikloan eskainitako destinoen bat badute 2024ko otsailaren 21a amaitzen denean.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 16a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.

2024ko urtarrilaren 31, asteazkena

ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA

KATEGORIA: FAK. ESP. KIRURGIA ORTOPEDIKOKO ETA TRAUMATOLOGIAKO MEDIKUA

LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. ESP. KIRURGIA ORTOPEDIKOKO ETA TRAUMATOLOGIAKO MEDIKUA

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
1	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Data igarota
1	Barrualde-Galdakao ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Bilbo-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin / 2HE-Igaro gabeko data (2024-12-03)
1	Bilbo-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Ezker.-Enkar.-Guruzetako ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Guruzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin / 2HE-Data igarota
1	Uribeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Data igarota